

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000000590

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_ERA_0005

**BERMEOKO TABERNEN XXII. MOZORRO TXAPELKETAREN 2025EKO DEIALDIA
ZABALTZEA ONARTZEA****Xedea**

Bermeoko tabernen XXII. mozorro txapelketaren 2025eko deialdia zabaltzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki du. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: 2025eko urtarrilaren 27an, Kontuhartzaileak 27/2025 fiskalizazio txostena egin du, eta emaitza desados izan da, oharrekin.

Hirugarrena: 2025eko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran, Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarri orokorrak onartu dira eta erabaki honen iragarkia 2025eko otsailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak beharrezko kontsignazioa dauka (RC 2025/000020)

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Hirugarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta ebazteko ahalmena Alkatezarena da baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu da. Horrela izan arren, kasu zehatz honetan, premiatusunagatik, eskumen hori abokatzea proposatzen da alkateak zuzenean eramateko.

Erabakia

Goian aitatuko guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:



LEHENENGOA: Bermeoko tabernen XXII. mozorro txapelketaren 2025eko deialdia zabaltzea onartzeko, Tokiko Gobernu Batzarrengan egindako delegazioa abokatzea, alkateak zuzenean eramateko.

BIGARRENA: Bermeoko tabernen XXII. mozorro txapelketaren 2025eko deialdia zabaltzea onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

LAUGARRENA: Deialdi honen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean xertatzeko agindua ematea ATB Sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90012157100Q3Z9H3J4R1A9

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/02/2025
12:39:44

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0005

Fecha: 08/01/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

